

BIGARREN HIZKUNTZA II: EUSKARA

2016/2017 ikasturtea (ohiko deialdia)

Irak.: Ricardo Gómez (2.87. bulegoa)

Tel.: 945 013983

E-posta: ricardo.gomez@ehu.eus

Deiturak.....

Izena.....

OHARRAK:

- **Galdera guztiak arretaz eta osorik irakurri.**
- Nahi adina **zirriborro eta eskema** egin daitezke, baina ez dira gero entregatu beharko.
- Azterketa osoa egiteko **gehienez bi ordu eta erdi** duzu.

A. Erantzun iezaiezu laburki ondoko galderei (markatutako lekua gainditu gabe):

JAKIN BEHARREKOAK:

- Galderak **arreta handiz irakurri** eta bertan eskatzen zaizunari erantzun, ez besterik (*aipatu* ≠ *azaldu*; adi egon azpimarraturiko hitzei). Luzeegi erantzuteak ez du puntuazioa igotzen, alderantziz baizik. Ahal den **zehatzen eta laburren erantzutea** hobetsiko da.
- Ildo horretan, ez errepikatu galderako testua erantzunean; benetako erantzuna emateko leku gutxiago izango duzu.
- Froga honetan erantzun zuzen bakoitzak 1 puntu balio du eta hala-holakoak 0,5 puntu. Erantzun okerrak 0 puntu balio du (ez negatiborik).
- Beraz, **gehienez ere 20 puntu = 2 puntu azken emaitzan.**

1. Aipa itzazu Bonaparteren ondoren euskalkien sailkapenak proposatu dituzten bi euskalari:

.....

2. Aipa itzazu Lazarragaren hurrengo esaldian agertzen diren hiru arkaismo:

Ez nigana iramo / zeure gezia, / sinis ezakezu / ene egia. [iramo: 'bota, jaurtiki']

-

-

-



3. Azal ezazu laburki zer den hizkuntzaren barneko historia:.....

.....
.....
.....

4. Adieraz ezazu esaldi hauetako bakoitzaren ondoan egiazkoa (E) ala gezurrekoa (G) den:

- Euskara Arkaikoan ez dago euskarazko testu luzerik
- Erdi Aroko euskararen lekukotasun gehienak leku eta pertsona izenak dira
- Akitanierazko izenak latinezko testuetan agertzen dira
- Euskara Arkaikoan euskalki guztietako lekukotasunak aurkitzen ditugu

5. Azal ezazu laburki zergatik ez diren zuzenak Lacombe-k eta Uhlenbeck-ek euskalkien jatorriaz proposatu zutena:

.....
.....
.....

6. Aipa itzazu euskara arkaikoko errefrac honetan agertzen diren hiru arkaismo:

Unaiok arri zitean, gastaek agir zitean “Los pastores riñieron, los quesos parecieron”

-
-
-

7. Aipa itzazu Hizkuntzalaritza Historikoan erabiltzen diren bi metodo nagusiak:.....

.....
.....
.....
.....

8. Azal ezazu laburki zeri deitzen diogun *hizkuntzaren protohistoria*?:.....

.....
.....
.....

9. Lot ezazu hizkuntza aldaera mota bakoitza dagokion terminoarekin, haren ondoan letra idatziz:

- | | |
|------------------|-----------------|
| (1) Diastratikoa | (a) Dialektoa |
| (2) Diafasikoa | (b) Soziolektoa |
| (3) Diatopikoa | (c) Kronolektoa |
| (4) Diakronikoa | (d) Erregistroa |

10. Zergatik esaten dugu Euskal Herrian eta inguruetan Antzin Aroko idazkun batean *H* letra aurkitzea esanguratsua dela?:

11. Azal ezazu laburki Arantzazuko Biltzarraren ondoren *H* letraren inguruan izan zen eztabaida:.....

12. Lot ezazu autore edo testu bakoitza bere garaiarekin:

- | | |
|--------------------|----------------------|
| (1) Mikoleta | (a) Erdi Aroa |
| (2) Leizarraga | (b) Antzin Aroa |
| (3) Aymeric Picaud | (c) Euskara Arkaikoa |
| (4) VM.ME.SA.HAR | (d) Euskara Zaharra |

13. Aipa itzazu Erdi Aroko euskara aztertzeko bi zailtasun:

14. Adieraz ezazu esaldi hauetako bakoitzaren ondoan egiazkoa (E) ala gezurrekoa (G) den:

- Bonapartek bere euskalkien sailkapen ezaguna *Le verbe basque en tableaux* liburuan argitaratu zuen
- Euskara Batu Zaharra erromatarren aurreko garaian izan zen
- Historiaurreko hipotesiek lehentasuna dute datu historikoen gainean
- Villasante euskaltzainburu izendatu zuten euskara batuaren kontra zegoelako

15. Aipa itzazu euskara eta beste hizkuntza edo familia batzuk konparatzean egin ohi diren bi oker metodologiko:

.....
.....

16. Zer erabili behar dugu dialekto bat definitzeko? (Marka ezazu zuzena):

- Berrikuntza eskusiboak.
- Arkaismoak.
- Berrikuntza partekatuak.

17. Azal ezazu laburki zer den kronologia erlatiboa:

.....
.....

18. Nork idatzi zuen Arantzazuko Biltzarrean euskara batua abian jartzeko txostena?:

.....

19. Lot ezazu autore bakoitza bere proposamenarekin:

- | | |
|---------------|--|
| (a) Mitxelena | (1) Euskalkien eta leinuen arteko lotura |
| (b) Zuazo | (2) Bizkaiera hizkuntza berezia izan zen |
| (c) Uhlenbeck | (3) Euskara Batu Zaharra |
| (d) Campión | (4) Euskalkien bost sorgune |

20. Zergatik esaten dugu dialekto galdu bat aztertze arazoak daudela? Azaldu laburki:

.....
.....
.....

B. Azaldu ezazu gai hauetariko BAT; gehienez BI ORRIALDE (ez bi orri) erabil ditzakezu (2 puntu):

1. Arabako euskara.
2. Euskara batua lortzeko urratsak Arantzazuko Biltzarra baino lehen.
3. Akitanierazko idazkunak: zer, noiz, non eta nolakoak.